

# Zerbitzu publikoak indartzeko eta soldata eta enplegua **HEMEN ADOSTEKO ERAGITEN JARRAITZEKO** **GREBA** *Martxoaren 12an GREBA* *EAEko sektore publiko osoan*

Urriaren 25ean eta abenduaren 19an egin genituen greba eta mobilizazioak, arrakastatsuak eta eraginkorrak izan ziren, patioa mugitu zuten, eta eragiten jarraitzeko bidea erakutsi ziguten. Zerbitzu publikoak indartzeko adostutako aldarrikapenak gauzatzeko borrokan segida eman behar zitzaie la aurreratu genuen, eta dagoeneko hitzordu berria zehaztu dugu ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuok: Martxoak 12

Erronka handiak borroka tinkoa eta dinamika sendoa behar du. Egiten ari garen borrokarekin jendarteak egoeraz jabeagoa da, eta alderdi eta erakundeen diskurtsoa eta jokabidea baldintzatu ditugu.

EAJ eta PSOEn arteko inbestidura akordioak soldata eta enplegua hemen erabaki ahal izateko ate bat ireki zezakeen arren, ez da benetako pausorik eman hori lortzeko ordea. Horren adibide argia da honako hau: Eusko Legebiltzarrak 2024rako onartutako aurrekontuetan, 19. artikulua jasotzen du Madrilek soldatetan eta enpleguaren arloan hartzen dituen erabakiak bete behar direla. Birjartze tasak balizko kentzearen inguruan Madriletik botatakoa iragarpen batean geratu da, eta iragarpen hori gauzatzeko balitz, hemengo eremu ezberdinetako agintarien borondatea baldintzatu beharko dugu, enplegu publikoa deusezten eta pribatizazioak sustatzen jarrai ez dezaten.

Euskal alderdi politikoei ere, beraien botoak

Madriletik ezarritako betoak galarazteko eskatu diegun arren, egun beto horiek mantentzen dira. Horregatik, aste gutxi barru landuko diren Estatuko Aurrekontuen Legean beto horiek kentzearen alde egiteko eskatu behar diegu beste behin ere.

Euskal langile publikoak gure lan baldintzak Euskal Herrian erabakitzeko eta zerbitzu publikoak indartzeko, **MARTXOAREN 12an SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEOK GREBARA ETA KALERA!!!**

- **Estatutik datozen mugak ez onartu, inposiziorik eta betorik ez!**
- **%10eko soldata igoera orain eta aurreko zorra berreskuratu**
- **Enplegua sortu eta egonkortu, behin-behinekotasuna %8tik behera**
- **Publikoa indartu, pribatizaziorik ez, publikifikatzeko planak adostu**
- **Lan kargak arindu, osasuna bermatu**
- **Politika feministak, berdintasun-plan erreal eta eraginkorrak adostu**
- **Administrazioak eta langileak euskaraz, iruzurrik ez**
- **Jardunaldiaren murrizketa, 32 orduko lan astearen norabidean**

# *Para reforzar los servicios públicos Y SEGUIR INFLUYENDO PARA ACORDAR AQUÍ el salario y el empleo*

## **HUELGA** *12 de marzo HUELGA en todo el sector público de la CAV*

Las huelgas y movilizaciones de los días 25 de octubre y 19 de diciembre fueron exitosas y efectivas, movieron el patio y nos mostraron el camino para seguir influyendo. Entonces ya adelantamos que había que darles continuidad en la lucha por hacer realidad las reivindicaciones acordadas para reforzar los servicios públicos, y los sindicatos ELA, LAB, CCOO, STEILAS y ESK ya hemos concretado una nueva cita: El 12 de marzo

Este gran reto requiere una lucha firme y una dinámica sólida. Con la lucha que estamos llevando a cabo la sociedad es más consciente de la situación y hemos condicionado el discurso y el comportamiento de partidos e instituciones.

A pesar de que el acuerdo de investidura entre PNV y PSOE podía abrir una puerta para poder decidir aquí el salario y el empleo, no se han dado, sin embargo, pasos reales para lograrlo. Claro ejemplo de ello es que en los presupuestos aprobados por el Parlamento Vasco para 2024, se incluye en el artículo 19 un sometimiento expreso a las decisiones de Madrid en materia de salarios y de empleo. Lo comentado desde Madrid sobre la posible supresión de las tasas de reposición ha quedado en un anuncio. Anuncio que, de materializarse, nos reforzaría para seguir condicionando la voluntad de las autoridades de los diferentes ámbitos de aquí para que dejen de destruir empleo público y promover privatizaciones».

Por otro lado, a pesar de que hemos pedido a los partidos políticos vascos que mediante sus votos impidieran los vetos marcados por Madrid, a fecha

de hoy se mantienen los mismos. Por ello, en el trámite de la Ley de Presupuestos del Estado que en pocas semanas se iniciará, debemos seguir exigiéndoles que apuesten por la retirada total de estos vetos.

Para que las trabajadoras y trabajadores decidamos nuestras condiciones laborales en Euskal Herria y para fortalecer los servicios públicos, **el 12 de MARZO TRABAJADORAS Y TRABAJADORES DEL SECTOR PÚBLICO A LA HUELGA Y A LA CALLE!!!**

- **No aceptar los límites que vienen del Estado, nada de imposiciones ni vetos!**
- **10% de incremento salarial ya, y recuperación de la deuda anterior**
- **Creación y estabilización de empleo, temporalidad por debajo del 8%**
- **Reforzar lo público, no a las privatizaciones, acordar planes de publicación**
- **Aliviar las cargas de trabajo, garantizar la salud**
- **Políticas feministas, consensuar planes reales y eficaces de igualdad**
- **Administraciones y personal en euskera, sin fraudes**
- **Reducción de jornada, hacia la semana laboral de 32 horas**